

Albaolak  
Pasaian du  
bere portua  
eta bere lan eremua  
mugarik gabeko  
itsasoa da

Lat 43° 32' 91" N  
Long 1° 9' 25" W



Albaola Itsas Kultur Erakundea

albaola@albaola.com • www.albaola.com

Non gaude:

**Ondartxo**

Itsas Kulturaren Zentroa

38 postakutxa  
20110 Pasaia  
(San Pedro)

Tel.: (0034) 943 39 24 26



# etorkizunerantz Nabigatzen iraganetik

Albaola  
Itsas Kultur Erakundea

**Zer da Albaola?**

Albaola itsas kultura eta ondarea bere ikuspegi guztietan lantzen dituen erakundea da.

**Zein da gure helburua?**

Itsas kulturaren normalizazioa eta garapena, eta itsasoko ondare materiala eta inmateriala ikertzea, berreskuratzea eta gizarteratzea.

**Nola?**

Euskal itsas teknologiarri buruzko ezagutza teorikoak gauzatzuz eta praktikan jarriz eta gizartea ondare interesa duten jardueretara bultzatuz.


Lau lan eremu ditugu:


**Ikerkuntza**

**Nabigazioa**

**Ontzigintza**


**Gizarteratzea**






### Ikerkuntza

Albaolak arkeologia esperimentalean oinarritzen du bere lana. Lan egiteko modu honen bidez, galduta edo galtzear dauden itsasontziak eta nabigazio teknikak biziberritzen ditugu. Ondorioztapen akademikoak praktikan gauzatzeko osatzen du iraganeko itsas teknologiaren ezagutza. Horretarako, Albaolak itsas kulturaren hainbat arlotako aditu batzorde bat dauka.



### Nabigazioa

Ondare balioa duten itsasontzi tradizionalen berreskurapenarekin batera, ezinbestekoa da itsasontzia bere ingurune naturalera itzultzea, itsasora alegia. Era honetan, ondare berreskurapena bikoitza da: materiala -ontzia- eta inmateriala -jatorrizko nabigazio mota-. Hainbat garaitako itsasontziekin nabigatzen dugu, nola arraunean ala belaz, eta horrek itsasontzi bakoitzari dagozkion teknikak deskubritzea eta berrerabiltzea ahalbideratzen digu. Gure nabigatzeko moduari arkeonabigazioa esaten diogu. Hainbat nabigazio jarduera burutzen ditugu: espedizioak, eskolekin elkarlanean egindako nabigazio hezitzaileak, ontzi topaketak...




### Ontzigintza

Gure eraikuntza prozesua integrala da: basoan hasi eta itsasoan bukatzen da. Albaolaren helburu nagusienetakoa itsasontzien jatorrizko tipologia berreskuratzea eta artisaun-ontzigilearen lanbidea bizirik mantentzea da. Horretarako, eraiki beharreko ontziaren ikerketa burutu ondoren, ontziolako zurginek jatorrizko eraikuntza teknikari ekingo diete. Ontziaren jatorrizko izaerari, lehengaiari, lan prozedurari eta teknikari leial izatea da helburua, ontzia egiteko lan protokolo zorrotzei jarraiki. Horrela, eraikuntza prozesua bera aspaldian galdutako jakinduria eta teknologia berreskuratze bidea bihurtzen da.

### Gizarteratzea

Albaola Itsas Kultur Erakundearen itsasoaren eremuan burutzen ditugun lan guztiak jendarteratzeko ahalegina egiten dugu. Gure xedea arloz arlo lantzen dugun itsas kultura eta bere baloreak ahalik eta jende gehienara iristea da. Horretarako hainbat euskarri eta jarduera mota erabiltzen ditugu: espedizioak, hitzaldiak, erakusketak, argitalpenak, ikus-entzunezkoak, itsasontzien arteko topaketak eta abar.



Gure lan ildo guztietan lau zehar-lerro ditugu: **ingurugiroa, hezkuntza, giza-baloreak eta elkarlana.**

### Ingurumena

Gure lan egiteko moduak, lehengaiak, itsasontziak eta nabigazio erak ingurunearekiko errespetuan oinarritzen dira. Gure jardueretako asko natur inguruetan burutzen ditugu, nola itsasoan zein ibaietan nabigatuz ala basoan, ontzigintzarako baliatzen dugun egurra eskuratzeko. Natur ingurunearen behatzaitzat dugu gure burua eta gure ekimenen berezko izaeraren baitan dago naturaren zaintza eta kontserbazioa.



### Formakuntza

Gure itsas teknologia mendeetan zehar garatu da, aldiro gure gizarteak izan dituen erronkei erantzunez. Gure kulturaren jakinduria kolektibo hori mantentzea funtsezkoa iruditzen zaigu. Helburu horri begira itsas kulturaren zaleak ontzigintzan eta nabigazioan hezten ditugu.



### Giza baloreak

Eraikuntza eta nabigazio tradizionalak zein gure itsas jarduera guztiak giza baloreetan oinarritzen dira: Natur ingurunearekiko errespetoa, talde-lana, kulturarteko zubiak...

### Elkarlana

Elkarlana baloretzat dugu. Gure proiektuak elkarlanean oinarritu daitezten ahalegintzen gara eta beraz, diziplina arteko zubiak egiten saiatzen gara ikerkuntzan, ontzigintzan, nabigazioan eta gizarteratze lanetan. Munduko hainbat itsas erakunde eta adituekin lan egiten dugu eta elkarlanean ateratzen ditugu aurrera gure proiektuak. Horrek beste esperientzia batzuk ezagutzeko aukera ematen digu, gureak kanpoan ezagutarazteaz gain.

